

6 mantangorri

Askatu irudimena

Ipuin eta ilustrazio lehiaketa antolatu du Elkar fundazioak. Lehiaketa antolatzen duen bosgarren aldia da, eta haur eta gaztetxoen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzea da haren helburua. Apirilaren erdialderako aurkeztu behar dira narrazio zein ilustrazio guztiak.

Martin Eztabilondok bete du aspaldiko ametsa: alkate izendatu dute. Orain, alkate izan aurretik egindako promesa bete behar du: parke eder bat eraiki behar du herriaren erdi-erdian.

Horra marrazki eder bat egiteko abiapuntu polita. Nolako parkea eraikiko du Martin Eztabilondok, herritarrok gustura uzteko? Nolakoa irudikatzen duzue parkea? Ea, hartu koloretako margoak, eta ekin lanari!

Marrazkia egiten hasi aurretik, irakurri arretaz www.elkar.com atarian duzuen Parke bakartia ipuina. Antton Kazabon idazlea da istorioaren egilea, eta ziek izango zarete ilustratzailak, Elkar fundazioak antolatu duen Ipuin eta Ilustrazio Lehiaketan parte hartzea erabakitzetan baduzue, bederen.

Elkarrek lehiaketa antolatzen duen bosgarren aldia da aurten goa. Ohi bezala, ilustrazio lehiaketa tarekin batera, narrazio edo ipuin lehiaketa ere prestatu du gaztetxozentzat. Aurten, Patxi Gallego marrazkilariaren ilustrazio bat jarrí beharko dizkiozue hitzak.

Haur eta gaztetxoen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz antolatu dute aurten ere ilustrazio eta ipuin lehiaketa. Gaztetxozentzat da ilustrazio lehiaketa: Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte ikasten ari diren haurrentzat.

Antton Kazabonek lehiaketarako espresuki idatzitako ipuinaren tzako marrazkia egin beharko dute parte hartzaleek. A3 edo A4 formatuko orrialdeetan egin behar dira ilustrazioak, góogoko mar-

go motak eta estiloa edo teknika erabiliz.

Haur bakoitzak marrazki bakar bat aurkeztu beharko du, eta ondorengó datuak idatzi beharko ditu, ahaztu gabe: egilearen izen-abizenak, jaioteguna, telefono zenbakia eta helbidea. Ikastetxetik bidaltzen diren lan guztiak ere datu horiek izan behar dituzte, baita ikastetxearen izena ere.

Helduak, ipuinak sortzen!

Ipuin lehiaketa, berriz, helduagoentzat da: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleengandik hasi eta DBHko 4. mailara bitartekoentzat.

Ikasle bakoitzak istorio bat sortu behar du Gallegoren marraskirako. Idazlanek edo ipuinek orri bakarrean idatziak egon beharko dute, eta 1.500 eta 2.000 karaktere arteko luzera izango dute. Ez da onartuko eskuz idatzi-tako lanik; denak, beraz, ordenagailuz idatziak bidali behar dira.

Marrazkiaren kasuan bezala, ipuinaren atzoko aldean ere euren datuak idatzi beharko dituzte ikasleek; marrazkian zehaztu behar diren datu berberak. Ikastetxeko gelaren batean lan hau proposatzen bada, gela bakoitzeko hiru lan aurkeztu ahal izango dira soili. Irakaslearen esku geratuko da, beraz, gelako zein hiru lan aurkeztu erabakitzea.

Marrazki zein narrazio guztiak apirilaren 19a baino lehen bidali behar dira; horixe da lanak aurkezteko azken eguna. www.elkar.com atarian jarri daitezke lanak, edo El-



Oinarriak

• **Zer:** Ipuin eta ilustrazio lehiaketa.

• **Adin tartea:** HHko 2. eta 3. mailatik LHko 3. eta 4. mailara haurrentzat, ilustrazio lehiaketa. LHko 5. eta 6. mailatik DBHko 3. eta 4. mailara artekoentzat, ipuin lehiaketa.

• **Ilustrazio lehiaketa:** Haur bakoitzak marrazki bakarra bidali ahalako du. Edozein teknika edo margo erabil daiteke marrazkia egiteko.

• **Ipuin lehiaketa:** Orri bakarreko lanak; 1.500-2.000 karaktere inguru-koak.

• **Azken eguna:** Apirilaren 19rako bidali behar dira lanak.

• **Nora bidali:** Eraman edozein Elkar liburu dendatara; www.elkar.com atarian jarri, edo bidali ondorengo helbidera: Ipuin eta ilustrazio lehiaketa - Euskal Kulturgintza SA - Portuetxe, 88 - 20.018 Donostia.

• **Informazio gehiago:** www.elkar.com atarian.

karreko edozein liburu dendatara eraman daitezke. Posta arruntez bidaltzea da beste aukera bat. Kasu horretan, helbide honetara bidali behar dira marrazkiak eta ipuinak: Ipuin eta ilustrazio lehiaketa - Euskal Kulturgintza SA - Portuetxe, 88 - 20.018 Donostia.

Oraindik ia hiru hilabete dituzue irudimena askatu eta eskuak lanean jartzeko. Sari potoloak daude irabazleentzat. Ekin lanari, artistik!